

BERRIOBEITIKO UDALAREN ERAIKIN PUBLIKOETAKO INSTALAZIO FOTVOLTAIKOEN AUTOKONTSUMORAKO ENERGIA


Gaur egun, Berriobeitiko Udalaren zenbait eraikin publikok autokontsumorako instalazio fotovoltaikoak dituzte. Kontsumitzen ari den energia berriztagarria da (berdea), eguzkia bera baita energia-iturri sortzailea.



Gainera, kontratuak Goiener enpresa merkaturatzailearekin ditugunez, kontsumitzen dugun energia guztia iturri berriztagarrietatik datorrela ziurta dezakegu, Goienerrek %100 iturri berriztagarrietatik bakarrik hornitzen duelako energia, eta hala ziurtatzen du CNMck (Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala).

CNMck, etiketa hori lortzeko, hainbat kalkulu egiten ditu, besteak beste, merkaturatutako energian energia elektrikoa sortzeko iturri bakoitzak duen ekarpena eta CO₂ isurpenetan eta jarduera handiko hondakin erradioaktiboetan duen ingurumen-inpaktua, bai eta dagokion energia-kalifikazioaren adierazgarri den A-tik G-rako letra ere.

Etiketa hori, Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren 2021eko azaroaren 30eko Ebazpenean CNMckren elektrizitatearen etiketaren formatuari buruz zehaztutako eredu normalizatuaren arabera, honako hau da:



R2-460	
ETIQUETADO COMERCIALIZADORAS	GOIENER S.COOP
Renovable	100,0%
Cogen. Alta eficiencia	0,0%
CC Gas Natural	0,0%
Carbón	0,0%
Fuel/Gas	0,0%
Nuclear	0,0%
Otras no renovables	0,0%
Emisiones de CO ₂ eq. (g/kWh)	0 (g/kWh)
(g/kWh)	A
Residuos Radiactivos (µg/kWh)	0 (µg/kWh)
(µg/kWh)	A

Goienerrek hornitutako energia guztiaren Jatorri Bermearen Ziurtagiriak (GDO) aurkezten ditu, eta CNMck urte amaieran ziurtatzen du. Taulan ikus daitekeen bezala, Goiener enpresa hornitzaileak A motako etiketa lortu du.